

# Enbata-Alda! txuri-beltzeko ezkontza argia

Enbata mugimendua orain 50 urte jaio zen. Haren eragileek Enbata kazeta sortu zuten segidan. Azken lau urteetan Enbatak bikotekide bat darama berarekin: Alda! Enbata txuri-beltzeko garaian jaio zen eta txuri-beltzez kaleratzen da prentsa koloretsuen garaion.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

ENBATA ALDIZKARIA EMBATA izenez –”m”-z, eiki– karrikaratu zen hastapenean. *Embata* hilabetekaria zen. Aldizkaria izan aitzin mugimendu politikoa izan zen. Jakes Abeberrik, mugimenduaren eta aldizkariaren sortzaileetako batek, oroitarazi digu garai hura: “Embata Bordelen ari ziren ikasleek sortu zuten. Abertzale gisa agertzen ziren bakarrak Marc

Legasse edo Jean Goihenetche ziren, baina bakarka betiere. Ikasle haiek Bordelen biltzeko parada ukan zuten eta *baskismotik* abertzaletasunera urratsa eman zuten talde gisa”.

Mugimendua eta *Embata* aldizkaria ez ziren gauza bera hastapenean. Biak ala biak aribidean eratu ziren. Iparraldeko lehenengo Aberri Egunaren kariatara, Itsasun, Julien

Madariagak eta Ximun Haranek Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zuten. Ekitaldia Frantziako Gobernuak deuseztua izan zen. Beranduago, kimua arbola lerdan bilakatu, Itsasuko Agiria daraman harria ezarri zen bere ondoan: “Frantziako Gobernuak 1974ko lehen egunean mugimendua debekatu zuen. Guk kazeta ere debekatu





**“Enbata ETaren inguruan ibili zen. EAJren inguruan inoiz ez. EAJ ez baitzen Iparraldean inplikatu. Ez zuen deus jakin nahi gurekin”. (Jakes Aberri)**

zuelakoan, urte batez ez genuen *Enbata* atera. Gero, alderdi politiko-koen eta prentsaren legeak ezberdina-  
nak zirela jakin genuen. 1975ean, berriz, kazeta *Enbata* izenez eta astekaria bezala plazaratu genuen”, diosku Aberririk.

**“Enbata ABren ingurukoa da, baina irekiak gara guztiz. Abertzaletasunaren ildo guztiek lekua dute gurean. politikaren erreferentzia bilakatu da, bai abertzaleona bai frantses alderdiena”**

**Jakes Aberri**

#### **Enbata astekari independentea**

*Enbata* astekaria talde politikoetatik independente jaio zen Aberriren hitzetan: “Hegoaldeko eta Iparraldeko abertzaleon helburua bera zen eta hala da. Baina gure engaiamendu moldea ezin zen eta ezin da bera izan hamaika arrazoiengatik. Konbateak bestelakoa izan behar zuen orduan eta orain. Egia da, *Enbata* Gernikako Arbolaren kimua landatu zenean, ETaren inguruan zebilela. EAJren inguruan inoiz ez. EAJ ez baitzen Iparraldean inplikatu. Ez zuen deus jakin nahi gurekin”.



**“Abertzaletasuna natura positibista bezalakoa da, dena sortzen da. Ez da deus betiko galtzen, mugimendu oro eraldatzen da”. (Ellande Duny-Pétré)”**

Alabaina, *Enbata* mugimendua bera zatitu zen bozen ondoren. Aberri, kazetaren arduraduna zena, arduradun eta gidari nagusia bilakatu zen. *Enbata* mugimendu politikoa-  
ren ondoren EHAS (Euskak Herriko Alderdi Sozialista) lehenik eta EB (Euskal Batasuna) gero sortu ziren. Eta beranduago AB (Abertzaleen Batasuna): “*Enbata* ABren ingurukoa da, baina irekiak gara guztiz. Abertzaletasunaren ildo guztiek lekua dute gurean. *Enbata* politikaren erreferentzia bilakatu da, bai abertzaleona bai frantses alderdiena. Prefekturan, Suprefekturan, Justizia Jauregian nahiz tokian tokiko gobernu gunetan irakurria da. Demoen aurkako auzibidean juleek *Enbata* aipatu zuten behin baino gehiagotan”.

#### **Enbata sare bat da**

Independente izatea zaila da eta *Enbata* kaleratzea militantziaren emaitza. Sosa beti eskas baita. Ezina ekinez egiten da ordea. Jakes Aberri kuraia horren pertsonifikazioa da: “Ez naiz bakarra. Ellande hor aritu da ere urteetan. Gero Mixel heldu da. Azken urteotan *Alda!* inguruan Xabier eta *Txetx* ari dira. *Enbata* sare bat da”.

Ellande Duny-Pétré etxean ezagutu zuen *Enbata* fenomeno politikoa: “Xantza ukan dut bizitzan! Aita Frantziako polizia izanik ere, abertzalea zen. Lehen Aberri Egunera aitarekin

joan nintzen, galtza motzetan. Gauza bitxia zen, naski. Aitak frankismoaren aurka borrokan aritu ziren makiak lagundu zituen. Alemaniarren aurkako erresistentzian aritu zen gero. AEBak Francoren alde paratu ziren nolabait eta Europak diktadura onesteak erabat markatu zuen ene aita” erran digu Duny-Pétrék.

**“Ezin da Hegoaldeko prentsa soilik irakurriz errealitatea agertu. Espainolen ikuspegia ere behar da zenbaitetan, beren azalpenek beste argipen bat ematen dute”**

**Ellande Duny-Pétré**

1980ko hamarkadan hasi zen *Enbata* laguntzen, eta geroago, Hegoaldeko kronika politikoa lantzen gaur arte: “Prentsa irakurtzen dut, espainola bereziki. Ezin da Hegoaldeko prentsa soilik irakurriz errealitatea agertu. Espainolen ikuspegia ere behar da zenbaitetan –Hegoaldea ez baita soilik abertzaleena–, beren azalpenek beste argipen bat ematen dute. Diodanak hutsala irudi luke, baina espainolen prentsako ‘zentimetro karratuko informazio kopurua’ izugarria da. Askoz sendoagoa da Madrilgo pren-

tsa euskal prentsa baino, bistan da. Euskal prentsan ere irakurtzen dut, baina ongi bereizi behar da nork hitz egiten dion nori”, gehitu du solaskideak.

### AB eta Batasunaren haustura

Duny-Pétréren aburuz AB eta Batasunaren arteko hausturak ez du eragin *Enbata*ren bilakabidean. EB sortu zen garaian hasi zen *Enbata*ren ildo editoriala ETArekin estrategiatik aldentzen: “Hipercor-eko atentatua erru bat bezala ‘onartu’ genuen. Baina ondoren, ETA auto-bomba bidezko sarraskiak hasi zen bere gain hartzen. Erabateko haustura PPko Gregorio Ordoñez hautetsia hiltzean eman zen. Ez dugu bataila politikoa irabaziko hautetsiak hiltzen, hauteskunderen bidez baizik” diosku.

Iparraldeko prentsaren monopolioa *Sud-Ouest* egunkariak dauka. Azken urteetan *Le Journal du Pays Basque* tokia egin du kioskoetan. Ez da aise berripaperen etorkizuna: “*Enbata* iritzi agerkaria da bereziki. Hemen, papera euskarri gisa erabiltzen duen halakorik ez dago ia-ia. Oso arlo berezia da gurea, eremu ahula. Gureak iritzi publikoaren %10 hartzen du. *Enbata*ren rola, bitarteko mugatuekin bada ere, abertzaletasunaren gogoea eskaintzea da”. *Enbata* 50 urteetan kaleratu bada, aitzina segituko du Duny-Pétréren eletan: “Abertzaletasuna natura positibista bezalakoa da, dena sortzen da. Ez da deus betiko galtzen, mugimendu oro eraldatzen da. Bistan da, etorkizuna Internetetik pasatzen da. Efikazia behar da ere”. Hegoaldeari begira ari denez, kazetaritzaz harago doan begirada eskaini digu: “Iparraldeko abertzaletasunak asko zor dio Hegoaldekoari. Badago zor gisako bat. Historikoki lilura bat izan zen errefuxiatuen eta bertako militanteen artean. Egun, naski, abertzaletasunaren krisiak hurbilduko ditu bi



# 2009

## BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

[www.txapelketanagusia.eu](http://www.txapelketanagusia.eu)

Urriak 17, larunbata 17:30ean  
Kiroleta pilotalekua - **UZTARITZE**



XABI PAYA AITOR SARRIEGI ERIKA LAGOMA  
UNAI MUÑOZA BEÑAT GAZTELUMENDI ARKAITZ ESTIBALLES

Urriak 18, igandea 17:30ean  
Aritzatalde kiroldegia - **ZARAUZ**



IRATXE IBARRA XABIER SILVEIRA IKER ZUBELDIA  
UNAI AGIRRE OIHANE PEREA JOXE MUNDUATE

Laguntzailea:

# argia



aldekoak agian. Hegoaldeko abertzaleak ohartu behar dira zein den beren oinarri soziologikoa. Euskal Herriaz mintzo dira denak, baina lehenago herria konbentzitu behar da, den bezala onarturik. Funtsean hori da ere Iparraldeko abertzaleen arazoa: herritarrak konbentzitzea”. Iparraldeko jendartea nahas-mahasean mugitzen ari da azken urteetan. Euskal Herria konplexua da. Une honetan belaunaldi berriak integratu behar dira. Prentsak badu hori lana. Jakes Abeberrirentzat ere hitz hauek ukan ditu: “Animalia politikoa da. *Enbata*ren arima. Eta segitzen du izaten. *Herrian* Piarres Laffite 40 urtez aritu zen eta kazetak segitu du. *Enbata* ere segida izanen du. Nik trufaz erraten diot: ‘Zaude zaude, zuk lurperatuko gaituzu’”.

### Enbataren garai zaila

Duny-Pétrék “lurperatuko gaituzu” erraitean Mixel Bidegain eta Jean Pierre Brisset ukan ditu gogoan, besteak beste. Honela mintzatu zaigu Mixel Bidegain: “Enbatak langile bakarria du ordainduta, eta denbora erdiz. Lan teknikoa egiten duena. Gainerakoak bolondresak gara. Gure inguruan hogeitau lagun inguruk egiten dituzte beren ekarpenak, batzuek hilabete behin, beste batzuek astero”.

Zazpi editore egile dira: “Hiru frantsesez eta lau euskaraz. Zortzi

kronikagile. Bi zuzentzaile. Beñat Amestoy apaiza –66 urteko apezgaztea!– da gure marrazkigilea: *Etxebeltz*. Beste hiru lagun bidalketa, harpidetza eta diru kontuez arduratzen dira. Gurea xinaurrien lana duzu”. *Enbata* –beren denboraren zatiño bati esker– hainbat lagunek egindako aldizkaria da: “Batzuek pixka bat, eta beste batzuek asko eginez. Harpideduneei esker bizi gara, kazeta maldan behera doa halere: 600 harpidedun pasa dugu. Duela hogeitau urte doblea

**“Hemendik lau urtetara, beharbada guk ere aldizkari elektronikoa landu beharko dugu. Garai batean entsegua izan zen, webgunea ezin elikatuz gelditu zen ordea.**

***Alda!* hartu du egiteko hori orain”**

**Mixel Bidegain**

zen ordea: 1300. Kioskoetan 200 bat ale saltzen dugu. Hauek zergatik ez diren harpidetzen ez dakigu. Usaiako kontua da, berena jestu militante bat da, naski”.

Bidegainek dioenez “guk aurrekontua biribiltzeko 100 bat harpidedun gehiago ukanez gero, 6000 euro urtean jasoko genuke. Gure aurrekontua osatua liteke, hara!

*“Alda!* ez da eslogan hutsetan erori, gogoeta eta mamia ekarri ditugu. Elkarlanean sinesten dugun agerbide da hori”.

(Xabier Harlouchet)

Jakesek dio 50 urte buruan bizirik irautea mirakulua izan dela. Egia duzu, egia biribila!”.

### Etorkizunari begira

Etorkizunari begira aritzeko iraganari begiratu behar zaio, pixka bat bederen. *Enbata* sortu zenean ia frantses hutsez egina zen, euskara gutxi sartzen zen. *Enbata* sortu zutenek ikasketak frantsesez egiten zituzten. Abertzaletasuna sustatzeko aritu ziren, euskal kontzientzia zuten, baina ez ziren euskaradunak.

Enbata horrengatik gehienbat erdaraz argitaratu da: “Azken urtetan aise gehiago egiten da euskaraz, atalaren arduraduna nor den arabera gehiago egiten du hark. Baina ez da faltsukerietan aritu behar. Frantsesa da nagusi” dio Bidegainek. “Etorkizunean *Enbata* nola agertuko den, ez dakit, hemendik lau urtetara, beharbada guk ere aldizkari elektronikoa landu beharko dugu. Garai batean entsegua izan zen, webgunea ezin elikatuz gelditu zen ordea. *Alda!* hartu du egiteko hori orain”.

*Enbata* iraun behar du, bera baita abertzaletasunaren ahotsa, informazioaren ia alor guztiak lantzen dituena: “Abertzaleen arteko zatiketa ere handia da. Nola eragiten du *Enbata*an? Ez dakit. Belaunaldi bat desagertuz doa. Gure arazoa nekrologikoa da”. *Enbata* belaunaldi baten ekintza da bere hitzetan.

Abertzaletasuna hirutan edo lautan zatitua dago: EAJ, EA, AB, eta Batasuna. *Enbata* arazoa gainditzen saiatzen da, halere, politikoki hori sufritzen du. Alta, jomuga Estatua du: “Editorial bat idatzi dugu berriki. Hautetsien eta Garapen Kontseiluekin kritikoa. Garapen Kontseilutik aldizkaria gibelerat igorri zuten. Suprefekturan ere irakurtzen dute, ziur. Botere gunetan termometroa bezala erabiltzen dute *Enbata*” diosku Bidegainek pozarren.

### Enbata-Alda!ren ezkontza

2006ko urtarrilean atera zen *Alda!*ko lehen alea *Enbata*an. Xabier Harlouchet hasi berria zen Manu

**“Enbatak langile bakarra du ordainduta, eta denbora erdiz. Gainerakoak bolondresak gara”.**  
(Mixel Bidegain)

Robles Arangiz Institutuan. Bera da *Alda!*ren koordinatzailea hasieratik. Institutua 2004tik ari da lanean. Hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen ditu, besteak beste: “Institutuak egiten dituen ekitaldiei leiho bat irekitzea izan genuen xede. *Enbata* azken mende erdian erreferentzia da hemen. Beste agerkari bat sortu ordez, ari zena, ongi ari dena, elkarlanaren bidez indartzea deliberatu genuen:  $1+1=3$  egiteko. Beste sare bat sortu gabe, sare erreferentziala zenaren baitatik, abertzale munduko kolore guztiak biltzen ditu *Enbata-Alda!* bikoteak. Haratago joan da gainera, Institutuak arlo sozialak hurbiletik lantzen dituen gero” azaldu digu Harlouchetek.

Ekonomiako sail bereziak lantzen dituzte, enpresaz eta kooperatibismoaz. Ekonomia irakasleek eta ikasleek dihardute arloka. Harlouchetek honela ikusten *Enbata* eta *Alda!*ren elkarlana: “Institutuan gure lana jendarteko ereduari buruz gogoeta egitea da. Bizi dugun egoera aldatzeko, zerbait berria ekarri: elikagaien prezioen goititzea edo petrolioarena, garraioa, azpiegiturak eta lan munduko mobilizazioak aztertzen ditugu. 1995tik, mugimendu sozialen bilakabideari segimendu berezia egiten diogu. Egoera sozio-ekonomikoaren datuak erreportajeen bidez eskaintzen ditugu. *Klixka* zutabearen berriz, hamabi lagunek testu ziztadunak ekartzen dituzte, goitizenez sinatuak, denak hein berean arituz”.

*Enbata* eta *Alda!*ren arteko elkarlana ezkontza moderna da, akordioen bidezkoa. Ez da zertan betirako izan behar: “*Alda!*k sortzen dituen gastu gehigarriak berak estaltzen ditu. Lau orrialde gehiago horiek tratatzeko moldea aztertzen dugu astero, gaiak kontrastatuz, ez errepikatuz” diote Harlouchet eta Bidegainek.

Belaunaldiaren afera hizpide izan dugu berriz ere. Elkarlanak abertzale munduan ez diren sektore batzuk ekarrarazi ditu. Institutuaren gaiak hurbilagoak izanda, Institutuak



antolatutako kanpaina berezien gogoeten leioa da *Alda!*: “Arlo batzuetan publiko berri bat ukitu dugu. Militanteentzako tresna berria eta baliotsua dela sentitzen da. Gai batzuetan ari diren sareek esku ukaldia ematen dute, orain arte gai horiek ez ziren aise plazaratzen. Institutuak gaiak landu ondoren errazago da gaiak plazaratzea” gehitu du Harlouchetek.

**“Enbatak badu abantaila bat. Ni kanpoan izan naiz hamar urtez, eta ikuspegi orokorra ematen zidan. Ez egunerokoa, baina gaiek egoera soziopolitikoaren sintesia egiteko aukera ematen zidaten”**

**Xabier Harlouchet**

Bordeleko eta Pariseko diasporaren atxikimendu dute. Herriarekiko lotura gehiago sentitzen da urruan: “Aurrekontuaren zuloa tapatzeko dei berezia egin genuen 2008an –artean ez dakigu 2009koa tapatuko dugun– eta arauka kanpokoek atxikimendu gehiago eman zuten bertakoek baino. *Enbata* bizi garrantzizkoa da haientzat. Ez da itsutu behar halere. Nahiz *Alda!*

dugun, *Enbata* belaunaldi baten aldizkaria da”.

Xabierrek abertzalea ez den mundua erakarri behar dutela dio. Institutua beste mundu batera irekia da, baina, antza, ez da aise hemengo gizartea zer bilakatuko den jakitea: “*Enbatak* badu abantaila bat. Ni kanpoan izan naiz hamar urtez, eta kazetak ikuspegi orokorra ematen zidan. Ez egunerokoa, baina gaiek egoera soziopolitikoaren sintesia egiteko aukera ematen zidaten. Ari gara aztertzen zein bidetan segitu behar dugun, oraingo heinetik goiti joateko. Elkarrizketatzen ari gara alderdi eta talde ezberdinekin %10etik goiti joateko. Haien ibilmoldeak ezagutu behar ditugu. *Alda!*k laguntzen du zeregintza horretan”.

*Enbata* *Alda!*ren alde egin zuen, biak mundu alternatibo baten alde daudelako. Urrats hori estimatu izan da: “*Alda!* ez da eslogan hutsetan erori, gogoeta eta mamia ekarri ditugu. Eta hau ez da konplimendu bat, elkarlanean sinesten dugun agerbidea baizik”.

Harloucheten eta Bidegainen azken hitzak: “Ez dakigu nora egiten dugun, baina garbi dugu ez dela kazetan publizitaterik sartuko. Ez erakundeena ez pribatuarena. Aste-kari politikoa gara ildo argiarekin. Pario hori ez dugu egundaino egin eta ez dugu egiten”. ■